


Gimnastika erritmiko finalak

Belabietan izango dira bihar egun osoz ▶ 6




Goi mailako bi kontzertu izango dira gaur eta bihar Bonberenean

TOLOSA ▶ Gaur, Maddi Oihenart, Goia-Arriben eta Zeberio; bihar, Arianna Puella 'hip-hop' abeslaria ▶ 5



Arianna Puella gironarra Espainiako hip-hop abeslari ezagunenetakoa da. TOLOSALDEKO HITZA



BIANDITZ IRAOLA

Olivia Sanchezen paisaiak ostatuko paretetan daude

HERNIALDE ▶ Pintore eta irakasle ibartarraren lanak hilaren bukaera arte daude ikusgai; argia eta kolorea dira nagusi erakusketan ▶ 5

ZIZURKIL ▶

Afrikako haurren marrazkiak eta testuak

Sudan, Etiopia eta Somaliako haurrek egin dituzte ▶ 4

TOLOSA ▶

M-11koez liburua ateratu du Anjel Rekaldek ▶ 2

- Etxeko altzariak.
- Ordenagailuz egindako proiektuak. Tel.: 943 65 29 01
- Armairu enpotratuak neurritan. Lizardi poeta, 2
lo egiteko eta atsedean hartzeko onena **TOLOSA**

EUSKAL HERRIAK ZURE SINADURA AZKEN EGUNAK BEHAR DU

Herria	GAUR	BIHAR
LIZARTZA	7:30-14:30/20:00-21:00	12:00-13:00
IBARRA	8:00-14:00	12:00-13:30
BERROBI	9:30-14:00	—
ELDUAIN	9:00-13:00	—
LEABURU	9:00-13:00	—
BELAUNTZA	9:00-14:00	—
BERASTEGI	9:00-14:00	—
GAZTELU	8:00-14:00	—
IRURA	10:00-15:00	—
LARRAUL	9:00-14:00	—
ZIZURKIL	9:00-13:30	—
ADUNA	9:00-14:00	—
ALEGIA	8:00-15:00	—
VILLABONA	8:00-14:00	—
AMEZKETA	8:00-15:00	—
ANOETA	12:00-14:00	—
IKAZTEGIETA	9:00-15:00	—
ORENDAIN	9:00-14:00	—
TOLOSA	9:00-13:00/18:30-20:30	—
TOLOSA NOTARITZA	11:00-13:00	—

HEZKUNTZA ▶

Musika Eskolako aurrematrikula egiteko garaia

Tolosako Udal Musika Eskolako 2004-2005 ikasturteko aurrematrikula egiteko epea hilaren 31 arte izango da zabalik. Astelehenetik ostiralera, 10:00ak 13:00ak artean eman behar da izena.

ZESTA-PUNTA ▶



Laskorain taldekoak. HITZA

Laskorainekoak lehen Gipuzkoako Txapelketan

Zesta-puntako Gipuzkoako Txapelketan irabazle izan berri dira alebin mailako Laskorain taldekoak, Zumaia-koen aurka jokatu. Beñat Lopezek, Oier Zalduak eta Joseba Esnaolak —argazkian— lortu dute saria.

HEZKUNTZA ▶

HHIn, datorren ikasturterako aurrematrikula

2004-2005 ikasturterako aurrematrikulaketa epea zabalik dago HHIn, eta gaur da izena emateko azken eguna. 18 urtetik gorakoentzat, doakoa izango da, gazteleraz eta euskaraz. Eskaintza zabala du ikastetxeak: DBH graduatua, 25 urtetik gorakoentzat unibertsitatetako sarrera, etorkintzako gaztelerazko ikastaroak...

EUSKARA ▶

Herri Urratsera joateko autobusa Tolosatik aterata

Galtzaundik autobusak antolatu ditu igandean Senpereira, Herri Urratsera joateko. Gaur da izena emateko azken eguna: 19:00ak eta 21:00ak artean eman behar da egoitzan (Nafarroa etorbidea, 6).

KULTURA ▶



Anjel Rekalde tolosarra, Donostian, 11-M: Tres dias que engañaron al mundo liburua aurkezten. LANDER GARRO / OARSOALDEKO HITZA

Martxoaren 11koez

Anjel Rekalde idazle tolosarrak '11-M: Tres dias que engañaron al mundo' liburua idatzi du beste lau idazlerekin batera; Txalaparta argitaletxeak eman du argitara

IRATXE ETXEBESTE

Martxoaren 11ko atentatuei buruzko liburua kaleratu du berriki Txalaparta argitaletxeak. Espainiako hiriburua hankaz gora jarri zuen sarraskia izan dute hizpide bost idazlek 11-M: tres dias que engañaron al mundo liburuan. Gertaera bera, eta gertaera horren ingurukoak. RENFEko lau trenen barruan hamalau bizkar-zorrok eztanda egin zutenetik Jose Maria Aznar, Espainiako presidentea porrot egin zuen artekoak kontatzen dira, izan ere. Alderdi Popularraren botere absolutoa, Euskal Herriarekiko izan duen jarrera... ere bildu dute liburua egileek.

Idazle horien artean dago Anjel Rekalde tolosarra. *El otro nervio de la guerra* izena jarri dio berak idatzitakoari, eta, besteak beste, Alderdi Popularrak atentatuen egiletzari bu-

FITXA ▶

Izenburua. 11-M. Tres dias que engañaron al mundo.
Egileak. Anjel Rekalde (11-M: *El otro nervio de la guerra*), Santiago Alba Rico (*La vida en el planeta Tierra: el 11-M cotidiano*), Rui Pereira (*No os inquieteis, es la realidad que se equivoca!*), Giovanni Giacomuzzi (*La España del PP*) eta Jabier Salutegi (11-M: *Tres dias de engaño que cambiaron un Gobierno*).
Azala. Esteban Montorio.
Argitaletxea. Txalaparta SL.
Orrialdeak. 254.
Salneurria. 15 euro.



Best idazlek idatzi dute liburua.

zur zabaldutako zurrumurruei eta gezurrei buruz jarduten du: zergatik egotzi zion Aznarrek ETArri atentatuak egin izana, gezurra Espainiako Barne Ministeriotik heldu zela erredak-

zio, hedabide, bulego eta enbaxada askotara... Alderdi politiko, komunikabide, kritikoa eta erakundeen erreakzioak ere bildu ditu Rekaldek gertakarien ondorioak atera aurretik.

Tolosan jaio zen Anjel Rekalde 1957an. Soziologian eta Zientzia Politikoetan lizentziatua eta Kazetaritzan doktore da. Hainbat lan kaleratu ditu Txalaparta argitaletxearekin: besteak beste, *Dorregarai, Mugalaris* eta *Memorias del mañana* ditu idatzitak, eta prentsa analisisen inguruan saiakera eta ikerketa ugari egindakoa da. Azken urteetan errealitate politikoari buruzko kazetaritza tratamenduan sakondu du, eta baita euskal gizarteko, gazteen inguruko eta drogomeneko-tasunari buruzko gaietan ere. Bere azken lana Rui Pereirarekin batera egin zuen: *O novo jornalismo fardado. El Pais e o nacionalismo vasco*, Portugalgo Campo das Letras argitaletxearekin kaleratutakoa. Propaganda espainolari eta euskal munduaren kriminalizazioari buruz jarduten du, bere doktorego tesian oinarrituta.

GIZARTEA ▶

«Sexismoaren kontrako» kontzentrazioa izango da iluntzean Trianguloan

«Komunikabideetan emakumeak duen babes eza» bukatzeko deitu du Bilgune Feministak

ERREDAKZIOA

Bilgune Feminista komunikabideen informazio politika salatzeko ekitaldiak ari da egiten aste honetan, eta gaur iluntzerako (20:00etan) kontzentrazioa deitu du Trianguloan. Gizarte justua, berdintasunean oinarritutakoa eraikitzeko kon-

promisoa exijitzen die Bilgune Feministak komunikabideei, emakumearen gorputzaren «erabilera sexista» bertan behera utzi, estereotipoak amaituz eta komunikabideetan emakumeak duen «babes eza» bukatuz: «Emakumeak integratuko dituen informazio politikak eskatzen ditugu».

MUSIKA ▶

Zuberoako kantak, 'new age'-a eta 'jazz'-a, batera

Maddi Oihenart, Josetxo Goia-Arabe eta Juantxo Zeberio gaur, Bonberenean



Ekzer-eskuin: Zeberio, Oihenart eta Goia-Arabe. HITZA

ERREDAKZIOA

Hip-hop-a ez da Bonberenean entzungo den musika estilo bakarra. Gaur, Zuberoako kantu tradizionalak, *jazz* eta *new age* doinuak izango dira nagusi. Maddi Oihenart abeslari zuberotarraren, Josetxo Goia-Arabe saxofoi jotzaile nafarraren eta Juantxo Zeberio pianojole tolosarraren saioan.

Ihargi-min diskoaren kantak ekarriko ditu hirukoteak Bonberenera. «Testu tradizionalak musika berriekin eta aspaldiko kantuak molde berri izango dira entzungai. «Maddiren kantuak Zuberoako mendi, harpe eta arbailaren hatsa ekarriko digu barren-barrenera. Goia-Arabearen saxoak, konponketek eta konposizioek eta Zeberioaren pianoak egungo moldeetan kulunkatzen dute Maddi Oihe-

narteen ahots ezti eta sarkorra».

Oihenartek bizitza osoa darara kantuan. Hainbat diskoetan entzun daiteke haren ahotsa: *Lüralde zilarra* (1998), *Arbaila* (2002), Olatz Zugasti edo Juan Mari Beltranekin kolaborazioak... «Zuberoako klasizismoaren ahots esanguratsuenetarikoa, saxo eta pianoarekin jolas eta elkarrizketan ariko zaigu kontzertuan».

Goia-Arabe hainbat talde eta bakarlarirekin aritu da urtetan. «Herri musika eta *jazz*-a uztartzeko ahaleginetan», *Aurñamendi* (1996), *Eunate* (1998) eta *Herrimiña* (2000) diskoak grabatu ditu.

Zeberioek iaz kaleratu zuen *Umama*, Tolosako Hodeiertz abesbatzaren laguntzaz grabatutako diskoa. Azken urteotan, Benito Lertxundiren eta Imanolen pianojolea da.

MUSIKA ▶

Javier Garaialde Quintet, gaur, Fronton kafetegian

Javier Garaialde, Luis Jimenez, Carlos Perez, Marcelo Escrich eta Aurelio Zabalegi dira

ERREDAKZIOA

Javier Garaialde, Luis Jimenez, Marcelo Escrich, Carlos Perez eta Aurelio Zabalegi osatutako Javier Garaialde Jazz Quintet-ek kontzertua eskainiko du gaur, 23:30ean, Fronton kafetegian.

Nafarroako eta Frantzia hegoaldeko jaialdietan eta Bar-

tzelonako lokaletan egindako lanaren ondorioz *jazz* musikari eta maisuen ondoan jo izan du Garaialde; besteak beste, Bill Coleman eta Coleman Howkins. Jimenez zaragozarrak, Marcelo Escrich argentinarra eta Carlos Perez eta Aurelio Zabalegi iruindarrak izango ditu alboan, maila handiko musikariak guztiak.

MUSIKA ▶

Arianna Puello 'hip-hop' abeslaria bihar Bonberenean

Arianna Puello, 'Ari', gironarrak 'Asi lo siento' bere azken lana aurkeztuko du zuzenean bihar Bonberenea etxean

GARAZI AZKUE

Arianna Puellok, Espainiako *hip-hop* abeslaririk ezagunenetakoa bat, Euskal Herriko gaztetxe bakarrean eskainiko du haren emanaldia. Bonberenea da leku hori. Eta eguna, bihar. Lehendabiziko emakumea

izan zen Espainian *hip-hop*-a lantzen. Bidea ireki zien hurrengoei.

La Flecha (Zona Bruta, 2001) diskoaren arrakasta eta gero, *Asi lo siento* lana (Zona Bruta, 2003) kaleratu zuen. Dnoe, Orishas, Hablando en plata, Frank T & Nomah, Ikah eta

Abel, besteak beste, izan dira kolaboratzaile Puelloren hirugarren lan horretan.

Bihar disko horretako doinuak eta bestelakoak eskainiko ditu zuzenean Bonberenean. 22:30ean hasiko da emanaldia, eta 5 euro balio du sarrerak.

ARIANNA PUELLO ▶ 'HIP-HOP' ABESLARIA

«Beti oso ongi pasatzen saiatzen gara taula gainean»



TOLOSALDEKO HITZA

Hori ez da horrela, hezkuntza eta gizarte heziketaren arazoa da. Aldatzen ari da guztia, orain ez digute lehen ematen ziguten hezkuntza ematen. Gaur egun guztiak balio du, ongi egiten baduzu behintzat. Hasierako MCek gogorrena zein zen erabakitze txapelketak egiten zituzten, baina egun ezin dira MC guztiak zaku berean sartu. Ikusten dudana kontatzen dut zintzotasunez. Gizonen gauza dela esaten dutenak kontzertura etor daitezela, eta ikusiko dute!

Zertarako prest egon behar dute bihar Tolosako kontzertura joaten diren ikusleak?

Batailarako prest egon behar dute. Tolosan egongo garen lehen aldia da, eta leku berrietan jotzea apustu bat da guretzat. Zuzenekoetan sekulako egurra ematen dudala esaten dute eta jendeak oso ongi pasatzen duela. ◀

Emakumea da eta *hip-hop*a egiten du, iaz kaleratu zuen bere azken diska eta festarako eta ongi pasatzeko prest dator Tolosara, Arianna Puello, *Ari* da.

Azken diskoa zintzoa dela diozu. Zer esan nahi duzu?

Zintzoa da diskoan egia kontatzen dudalako, sentitzen dudana, kaleak ikusten dudana kontatzen dut eta alde horretatik da zintzoa. Barrutik ateratzen zaidana azaltzen dut.

Euskal Herrian askotan izan zara. Nola sentitzen zara hemen?

Oso ongi. Askotan etorri naiz Euskal Herrira, jada etxera etortzea bezala da guretzat. Ikusleak, jendea, eta Euskal Herria asko gustatzen zaizkigu. Oso ongi sentitzen gara hemen.

Zer eskaintzen duzue zuzenekoan?

Beti oso ongi pasatzen saiatzen

gara taula gainean, eta gehienetan lortzen dugu. Beti egoten dira zuzeneko arazotxoak, baina dugun guztia ematen dugu jendeak dantza egin dezan, salto egin dezan eta oso ongi pasa dezan.

Zer esango zenieke hip-hop gizonen gauza dela esaten dutenei?

hilberriak ▶

eskelak hartzen dira: 19:00ak arte ▶ 687 53 02 58 ▶ tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

Joakin Estarbe Aranburu

(jauna)

— Golan bego —

Etxekoek

TOLOSAN, 2004ko maiatzaren 7an

ZIZURKIL ▶ ERAKUSKETA

Errefuxiatuen marrazkiak eta testuak

Sudan, Etiopia edota Somaliako haurrek egin dituzte marrazkiak

GARAZI AZKUE

Abraham Bor Alenek 16 urte ditu eta Sudango Kukama errefuxiatu kanpamenduan bizi da, «geuk egiten dugu jatekoa, etxeak ere bai», dio Bor Alenek.

Abraham Bor Alenen moduan, haur asko bizi dira errefuxiatu kanpamenduetan, bai Sudanen eta baita Kenian ere. Maiatza Saltsan kultur egitarauaren barruan, ume horiek egindako marrazkiak eta testuak daude ikusgai Atxulondo kultur etxean. Sudango, Etiopiako edota Somaliako haurrak dira. *Behin ihes egin behar izan genuen* erakusketa antolatzen du Zizurkilgo Udalak.

Hogei marrazki daude erakusketan, eta marrazki bakoitzarekin testuak, haur bakoitzaren bizipenekin. Hamalau eta hamazazpi urte bitarteko haurrek egindako lanak dira, beraien bizipenak eta bizimodua azaltzen dute margolanetan eta testuetan. Marrazki koloretsuak eta biziak badira ere, bizipen latzak eta beltzak daude bakoitzaren atzean, gerraren eta ihesaren aztarna nabari da lanetan.

John Tory Negdemok 16 urte ditu, bere herrialdeetik alde egin behar izan zuen eta orain errefuxiatu kanpamenduan bizi da. «orain pertsonak gara, herrixka batean bizi gara. Oinetakoak eta alkadora ditugu, ikusten duzue?» azaldu du gazteak.

«Jolasten geunden... jende hori, soldaduak etorri zirenean. Korri baino ez genuen egin.

Ez genekien nora joan, baina kori egin genuen», idatzi zuen Peter Cahkush Photek, 14 urteko sudandarrak.

Eta umeek gain, beste errefuxiatuek idatzitako testuak ere badaude, emakume batek idatzitako kasu, «latza da familia, etxea eta lurra galtzea. Orain Keniara iritsi naiz. Ez daukat jantzirik, jatekoa eta aterpea eskatu behar dugu. Duintasuna galdu dut».

Marrazkietan berriz, armak, haurrak eta izua ikusten dira, baita kanpotarren eragina ere, Bor Alierrek sudandarrak, honela dio, «nire herrialdera jendea etortzen zen eta argazkiak egiten zizkigun, eta gure bizitza laggarriaren inguruan galderak egiten zizkiguten. Laguntza behar genuela esaten genien, eta lagunduko zigutela uste genuen. Orduan joan egiten ziren. Inork ez zigun lagundu. Ez galdetu nire arazoengatik inguruan, bestela zu ere joan egingo zara».

Bisita gidatuak

Edozein joan daiteke erakusketa ikustera, baina bisita gidatuak ere antolatuko dituzte ikastetxeetako haurrekin. Hurrengo astean gerturatuko dira ikasleak Atxulondo kultur etxera, eta bertatik bertara ikusi ahal izango dute beste haurrek duten bizimodua.

Erakusketa maiatzaren 14a arte egongo da irekita, Atxulondon. Gaur berriz, *Alhambra printzea* filma ikusteko aukera izango dute gazteok Atxulondon, 18:00etan.



Marrazkiak eta testuak. Hogei marrazki bildu dituzte erakusketan, guztiak, 16 urte inguruko haurrek eginak. Etiopiako, Somaliako edo Sudaneko umeek egin dituzte, errefuxiatu kanpamenduetan bizi direnak; eta marrazkiekin batera, idatziak daude jarrita. G. AZKUE



Istoriaok. Marrazki bakoitzak du bere istorioa, Aben Abdi, Binti Aden edota Abrahamek egin dituzte marrazkiak. Bakoitzak du bere istorioa kontatzeko. G. AZKUE



Errefuxiatuak. Marrazki guztiak, errefuxiatu kanpamenduetan dauden haurrenak dira, beraien herrietatik urrun bizi dira eta kasu askotan, gerraren lastasuna bizitu dute. G. AZKUE



Testuak. Lehenengo pertsonan idatzitako testuak dira, marrazki bakoitzak du bere testua eta koadroetan agertzen dena azaltzen du: gerraren ondorioak, errefuxiatu kanpamenduetako bizimodua eta kanpotarren bisitak azaltzen dituzte besteak beste. G. AZKUE

OSTATUA

- Eguneko Menua (aste guztian, larunbat eta igandea ezik)
- Karta aste guztian zehar

Urrope plaza • Leaburu
Tel.: 943 67 15 48

Sagardotegiko menua eta eguneko menua

EGUZKITZA
SAGARDOTEGIA

Usabal Auzoa, Amaroiz • 20400 **TOLOSA** • Tel.: 943 67 26 13

HERNIALDE ▶ PINTURA

Olivia Sanchezen paisaiak ikusgai daude ostatuan

Hilaren bukaera aldera arte egongo dira tabernako paretetatik zintzilik



Olivia Sanchez eta bere margolanak. BIANDITZ IRAOLA

BIANDITZ IRAOLA

Margotzen noiz hasi zen galdetuta, hasperen bat egiten du Olivia Sanchez ibartarrak, eta zazpi urte zituenetik edo horrelako zerbait ari dela dio. Duela hamabi urte, ordea, eskulan denda bat jarri zuen Tolosan, eta harrezkero etenik gabe aritu da pintatzen.

Pintatzeaz gain, irakasle lanetan ere badabil. Eskualdeko zortzi udaletxerekin elkarlanean herri horietan pinturaren sekretuak erakusten ari da. Horretaz gain, bere dendan ere egiten ditu ikastaroak, eta ez pinturaren gainean bakarrik, baita errestaurazioa zein beste teknika batzuk eskatzen dituzten disziplinak ere.

Hilaren hasieratik bere lan batzuk ikusgai daude Hernialdeko ostatuan. Akuairelak dira, hainbat gai ezberdin jorratzen dituenak, eta guztiak ere berak nahi izan dituelako eginak.

Jendeak enkarguak egiten dizkiola eta erretratuak egin behar izaten dituela dio, baina gehiena gustatzen zaiona natura dela esaten du.

Argiarekin jolasean

Hernialden ikusgai dagoen erakusketan natura da nagusi, baita paisaia ere. Akuairelak gustuko ditu, azkar lan egiten uzten diotelako. Koloreak atsegin ditu, baina bere koadroetan irudi batzuk errepresentatzea baino gehiago argia islatzea nahi izaten duela dio.

Egunaren 24 orduak pinturaren pentsatzen ematen ditu, lana dela eta beste erremediorik ez duela ere gogorarazten du. Astebukaeretan aprobeztatzen du, beraz, bere Larraulgo etxean nahi duena pintatu ahal izateko. Sorkuntza lan horretatik ateratako fruituak daude Hernialden, kolore biziak islatutako natura.

ANOETA ▶

Gazteen Egunerako dantza ensaioa

Anoetako Gazteen Eguna begira, gaur arratsaldean dantza entsegua egingo da Gaztetxean. 19:30ean izango da, eta orain arte izena eman dutenez gain, nahi duen oro agertu daiteke, oraindik parte hartzeko zerrenda irekia baitago. Norbaitek izena eman nahiko balu, Itzulin egitea dauka.

ANOETA ▶

Jazz eta folk kontzertua gaur arratsaldean

Gaur arratsaldean jazz eta folk musikak uzartzen dituen ikuskizunaz gozatu ahal izango da, UNHE boskotearen eskutik. Udal areto nagusian izango da kontzertua, 19:30etik aurrera. Duela sei urteko udan hasi ziren UNHEko kideak elkarrekin jotzen. Jazza eta folka nahasi zituzten hasieratik, baina beti ere taldeak bere izaera propioa gordetzen du, musikaz duen ikuspegi propioa eta pertsonala mantenduz.

IRURA ▶ KULTURA

Kultur Astearen atarian, argazki lehiaketa izango da bihar gaztetxoentzat

Ateratako argazkiekin erakusketa bat egingo da, Kultura Astean ikusgai izango dena

B. IRAOLA

Irurako Udalak antolatuta, argazki lehiaketa bat antolatu da biharko. Lehenengo mailatik aurrerakoek hartu dezakete parte, eta sariak ere banatuko dira Kultur Astearen barruan.

Parte hartu nahi duenak bihar arteko epea du, liburutegian eman behar du izena. Beharrezko karreteak udaletxeak banatuko ditu, baina norberak bere argazki kamara eraman

beharko du. Hasiara 16:30ean izango du lehiaketak, eta ordu-bete izango dute argazkilariek euren lana egiteko. Eguraldiak lagunduko ez balu, beste egun batera atzeratu liteke ekimena.

Gaia librea izango da, eta Udalak izendatutako epaimahai batek irabazleak izendatuko ditu. Gainera, eskuratutako argazkiekin erakusketa bat antolatuko da, eta Kultur Astean zehar ikusgai izango da udal-txean.

Ipuin lehiaketa ere bai

Bestalde, ipuin lehiaketa bat ere antolatu dute, irakurtzale-tasuna eta irudimena lantzen laguntzeko. Lehiaketa hau, argazki lehiaketa bezala, lehen mailatik aurrerako haurrentzat zuzendua dago.

Ipuinek ez dute zertan pertsona bakar batek eginak izan behar, binaka ere landu daitezke. Luzerari dagokionez, 3. mailara artekoenak 10 lerro izan behar dituzte, eta 4. mailatik aurrerakoek 20 lerro.

Lanak aurkezteko epea oraindik luzaro egongo da irekita, hilaren 20a izango baita entregarako azken eguna. Liburutegian utzi behar dira ipuinak, 19.00ak arte egongo da irekita horretarako.

Udalak izendatuko du epaimahai, eta sari banaketa bat ere izango da.

HERNIALDE-ANOETA ▶ INTERNET

Bi mintegi maiatzean Hernialdeko KZgunean

Anoetako KZgunean irekita dago ikastaroetan izena emateko epea

B. IRAOLA


Hernialdeko KZgunean bi mintegi izango dira maiatzean. Gaur bertan izango da lehenengoa, eta baserriaren inguruan eraturako erakundeak, azokarik garrantzitsuenak eta oinarrizko arloak behar bezala ezagutzeko hainbat helbide elektronikoren bilaketa laguntzea izango da mintegiaren helburua.

Bigarrena hilaren 21ean izango da, gaur hamabost. Beran irudi digitalaren trata-

mentuari buruzko lehen xehetasunak emango dira. Doakoak dira bi ikastaro hauek, eta 943-670167 telefonon eman daiteke izena.

Izen ematea Anoetan

Bestalde, Anoetako KZgunean irekita dago ikastaroetarako izen emate epea. Ikastaroak 10 edo 20 ordukoak izango dira. Bestalde, hil honetan 16:00etatik 20:00tara egongo da irekita. Xehetasun gehiago 943-654857 telefonon.



TOLOSALDEKO HITZAK zozketatutako *Leidor Zinemari* astebukaera honetan 'LA VENTANA SECRETA' filma ikusteko bi sarreren irabazlea: ONINTZA ONDARZABAL (TOLOSA)

BERROBI ▶

Herri Urratsera joateko autobusa antolatu dute

Senperen egingo den Herri Urratsera joateko, autobusa antolatu du Udal Kultur Batzordeak. Irteera 9:00etan izango da, eta Tolosan ere egingo du geldialdia. Senperetik 19:30ean itzuliko dira partaideak. Autobusaren prezioa hiru eurokoa da, eta gaur da izena emateko azken eguna, udaletxean. Telefona honakoa da: 943-68 30 85.

IBARRA ▶

Garagardo Festarako bilera astelehenean

Hurrengo astean egingo den Garagardo Festarako bilera deitu du Gurasoen Elkarteak. Antolakuntzan edozein modutan lagundu nahi duen orori, taldeetan daudenei, parte hartu nahi dutenei... deialdi bat egin nahi diete elkartekoek bilerara azaltzeko. Astelehenean, Kultur Etxean izango da bilera, 20:00etan. Garagardo Festa behar bezala aurrera eramateko jendearen parte-hartzea beharrezkoa da.

IBARRALDEA ▶

Belauntza eta Leaburuko KZguneak

KZguneko tutorea 09:00etatik 13:00etara izango da hila-ren 19an Leaburun; 12an eta 26ean, Belauntzan. Leaburun *Irudi digitalen tratamendua I* mintegia emango dute 19an, eta Belauntzan 12an. Belauntzan, 26ean, *Irudi digitalen tratamendua II* emango dute.

LIZARTZA ▶ POLITIKA

Ina Zeberioaren hiletako gastuak Udalak ordaintzea legez kontraktatzat jo du Espainiako Auzitegi Gorenak

Udalaren erabakiarekin «ez zela beharrezko zerbitzu sozial bat eman» nabarmendu du

ERREDAKZIOA

Espainiako Auzitegi Gorenak legez kontraktatzat jo du Ina Zeberio ETako kidearen hiletako elizkizunak Lizartzako Udalak

IBARRA ▶ GIMNASTIKA ERRITMIKOA

Gipuzkoako finalak jokatu dira etzi Belabieta kiroldegian

Bihar goizez eta arratsaldez jokatu dira; eskualdeko zenbait gaztetxok Euskadiko Txapelketara sailka daitezke



Belabietako eskolako zenbait ikasle, asteazkenean. D. GIBELALDE

DANI GIBELALDE

Bihar jokatu dira Belabieta udal kiroldegian Gimnastika Erritmikako Gipuzkoako finalak A mailan, goizez eta arratsaldez. Alebin, infantil, kadete eta jubenil mailan, eskola askotako gaztetxoak izango dira bertan: Ibarra eta ez ezik, besteak beste, Tolosatik, Bergararik, Donostiatik, Azpeititik, Hernanitik... etorriko dira. Txapelketa bertatik bertara ikusteko sarrera doakoa izango da. Alebinetan Belabieta Gim-

nastika Erritmikako Eskolak bi ordezkari izango ditu finalean: Laskorain ikastolako Garazi Egiuren eta Uzturpeko Izaro Esnaola. Jubeniletan beste bi ariko dira: Mirian Jimenez eta Aintzane Otaegi. Orain arte lortutako emaitza onei esker finalean sartzea lortu dute. Belabietako entrenatzaile Saioa Sorondoren hitzetan, ikasleek badituzte «dominaren bat lortzeko aukerak».

Egiuren, esaterako, iaz Euskadiko Txapelketan aritu zen, eta Esnaolak, gazteagoa izanik,

aurten erdietsi dezake sailkatzea. Alebinak esku librean eta sokarekin ariko dira, eta jubenilak mazarekin eta zintarekin. Finaletara sailkatutakoek, Arrasaten otsailean eta Bergaran martxoan jokatuak probetan emaitza onak lortu zituzten. Bi egun horietan lortutako puntuazioak batuta erdietsi dute txartela finaletarako. Hala, maila bakoitzeko zortzi onenak arituko dira lehiari larunbatean. Alebinei dagokionez, Euskadiko Txapelketarako lehen bost onenak sailkatuko dira.

Goizean A mailako alebinak, infantilak, eta kadeteak ariko dira (maila bakoitzeko bi modalitateetan), eta arratsaldean, A eta B mailako jubenilak.

Sorondok dioenez, «minutu eta erdian urte guztian egindako lana jokoan dago». Epailak ere zeresan handia du azken sailkapena erabakitzerakoan. Gimnasia erritmikoa hiru alderdi puntuatzen dira: ekuzioa, artistikoa eta teknikoa. «Alde teknikoa agerikoa izaten da, baina artistikoa subjektiboagoa da. Musika berarekin, gertatu izan da bi tokitan puntuazio desberdina jasotzea», dio Sorondok.

Prest dira Belabietako ikasleak etziko hitzordurako. Gogor aritu dira lanean urtean zehar. Astean hiru egun ez entrenatzen dute; jubenilek gainerakoek baino denbora gehiago aritzen dira etseguerik egiten. Ea etzi zortea aldeko duten.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun zentroa: 943 65 32 12

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61

Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu. Osasun

etxea: 67 24 11

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Orendain. Medikua: 65 55 95

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdiak:

46 11 11

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola, hitzordua

eskatzeko: 00 69 00

▶ Asunzio klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 943 67 25 36

▶ Gurutze gorria: 943 67 48 88

Villabona-Aitzondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Quetglas M.A. Euskal

Herria 46, (Ibarra). 67 32 74

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_publici@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aitz. 687 41 00 22.

villabona_aitzondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoeta. 687 41 01 18.

anoeta@tolosaldeko-hitza.info

Ibarra. 687 41 00 32.

ibarra@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Baserria. Leaburun baserria salgai, 2001 urtean erabat berrituta. 3.000 m2ko terrenoa, fruitu-arbolekin. Telefona: 649-268544.

Etxea. Iurrarendi ibiltokian familiabakarreko etxea salgai. 3 solairu, garajea, bi terraza eta bi lorategi. Interesatuak deitu: 667-986916.

LANA

Emakumea. Emakume bat behar dugu etxeko lanak eta haur bat zaintzeko. Tel: 943-675895 (19:00etatik 21:00etara).

Pelukera. Pelukera esperientziaduna, titulatu, eskaintzen da etxetan lana egiteko. 617-579146.

ordaintzea. Hala, Espainiako Auzitegiak ez du onartu Udalak Euskal Herriko Auzitegi Gorenaren aurka aurkeztutako helegiteak. 2001ean, auzitegi horrek Udalak erabaki horre-

kin «ez zegozkion eskumenak betetzea» azpimarratu zuen. Espainiako Auzitegi Gorenak «Udalaren erabakiarekin ez zela beharrezko zerbitzu sozial bat eman» nabarmendu du

orain, Familiari emandako laguntza «bitxia eta indibiduala» dela, eta «gizarte-laguntza beharrezkoa duten egoeran dauden lagunei ez zietela eragiten» argudiatu dute.

IKAZTEGIETA ▶ HIRIGINTZA

Ur edangarrirako estaziorako bidea egiten

Goikoetxea baserriaren inguruan egingo dute estazioa; horretarako lanean ari dira



Ikaztegieta sarrerako zelaian ari dira lanean. O. ESKITXABEL

O. ESKITXABEL

Herri sarreran, Aloña enpresaren pareko lurretan, lanean ari dira. Gipuzkoako Foru Aldundiko lan hidraulikoetako lan sailak ur edangarrirako estazioa egingo du Goikoetxea baserri inguruan. Bertara iristeko beharrezkoa zen bidea egitea eta lan horretan hasi dira.

Era berean, behekaldean egitekoak diren proiekturako

egin beharko diren lanak koordinatzeko, eta lur mugimenduak ekiditeko lanean jarri dira Aburuza eraikuntzak enpresako langileak. Lanak ondo solapatu daitezzen egokiena bi lanak koordinatzea dela erabaki zuten.

Lanean ari diren lur eremu horretan, industrialgunea egitekoak dira baina lanak aurrerago hasiko dira oraindik baimenen zain baitago Ikaztegieta Udala.

▶ MUSIKA

Laskorain, Txintxarri txiki eta Oroith abesbatzen emanaldia

Abesbatza bakoitzak hamar minutu inguruko emanaldia eskaini ondoren hirurak batera bi abesti eskainiko dituzte



Orion izan ziren hiru abesbatzak abestiak entsegatzen. HITZA

O. ESKITXABEL

Tolosako Laskorain, Alegiako Txintxarri txiki eta Ordiziako Oroith haur abesbatzek emanaldia eskainiko dute Jesusen Alabek ikastetxearen kaperan.

Hasieran, abesbatza bakoitzak hamar minutuko saioa egingo du; amaitzeko, hiru

abesbatzek batera bi abesti eskainiko dituzte: «Pasa den asteburuan hiru abesbatzak batera egon ginen Orion entsegatzen», azaldu du Idoia Iraolak, Txintxarri txikiko zuzendariak.

Kaxianoren *Itsasontzi baten* eta Oskorriren *Aita semeak* abestiak izango dira hiru abesbatzek batera kantatuko dituzte.

tenak. Bi abesten armonizazioa Josu Elberdinek egin du; berarekin egon ziren asteburuan.

Txintxarri Lasarten

Txintxarri abesbatza (heldue-na), Lasarteko Kultur etxean izango da bihar bertako Albo-ka abesbatzak gonbidatuta. Ekainean, Alegiara gerturatuko dira lasartearrak emanaldia eskaintzera.

ZUZENKETA ▶

Atzoko zenbakian Orendainen izandako hitzaldiko hizlariaren izena oker zegoen. Bera, Moira Ceberio da; tolosarra eta psikologa.

BIDEGOIAN ▶

Mujika, Eskudero, Idoate eta Ojuel garaile, herenegun

Kadeteen mailan, HITZA txapelketako partidak jokatu zituzten herenegun Bidaniako pilotalekuan. Mujika 18-Mitxelena 13; Eskudero 18-Jauregi 5; Idoate 18-Irazusta 12 eta Ojuel 18-Eizagirre 6. Horiek izan ziren jokaturako lau partidaren emaitzak. Gaur eta bihar hainbat partida izango dira Tolosan, Alegian eta Adunan.

ALEGIA ▶

Ugaitz Renobales, Sopelako finalean

Sopelako txapelketako finalean izango da Ugaitz Renobales alegiarra. Lau t'erdian jokatu du eta Olazabal leitzarria izango aurrez-aurre. Finala, igandean, maiatzaren 9an, izango da. Partida telebistaz ikusteko aukera izango da ETB-k eskaini behar baitu. 11:45ean izango da finala.

ALEGIA ▶

Urteko bilkura egingo dute adinekoek

Bihar, egingo dute adinekoek urteko bilkura; Jubilatuen Elkartean bilduko dira 11:30ean. Gai ordena: aurreko aktaren irakurketa eta honen onarpena bidezkoa bada, iazko kontuen balantzearen irakurketa, iazko jardueren eta aurten egin daitezkeen berri ematea eta galdera erreguak. Amaitzean, hamaitzetako izango da.

▶ POLITIKA

Herritarren Zerrendarako sinatzeko azken eguna gaur, herri gehienetan

Bihar Lizartzan eta Ibarren soilik jasoko dira sinadurak

O. ESKITXABEL

Ekainaren 13an izango diren Europar Parlamenturako Herritarren Zerrenda izeneko taldea osatu nahi du ezker abertzaleak. Horretarako, ezinbestekoa da herritarren sinadura kopuru bat jasotzea. Hori lortzera begira, sinadura biketa jarri zen martxan eskualdeko herri gehienetan.

Tokian tokiko udaletxeetara edota Tolosako Notaritzara gerturatu daitezke sinadura eman nahi duten herritarrek; norbere herrian sinatu ezin duten herritarrek Notaritzan sinatu dezakete.

Sinatzeko azken eguna gaur izango da herri gehienetan. Lizartzako eta Ibarako herritarrek bihar ere izango dute sinadura emateko aukera.

ORDUTEGIA ▶

Herria	Gaur	Bihar
Aduna	09:00-14:00	-
Alegia	08:00-15:00/18:30-20:30	-
Amezketeta	08:00-15:00	-
Anoeta	12:00-14:00	-
Belauntza	09:00-14:00	-
Berastegi	09:00-14:00	-
Berrobi	09:30-14:00	-
Elduain	09:00-13:00	-
Gaztelu	08:00-14:00	-
Ibarra	08:00-14:00	12:00-13:00
Ikaztegieta	09:00-15:00	-
Irura	09:00-15:00	-
Larraul	09:00-14:00	-
Leaburu	09:00-13:00	-
Lizartza	07:30-14:30/20:00-21:00	12:00-13:00
Orendain	09:00-14:00	-
Tolosa (Notaritzara)	10:00-13:00	-
Tolosa (udaletxea)	10:00-13:00/18:30-20:30	-
Villabona	08:00-14:00	-
Zizurkil	09:00-13:00	-



Ugaitz Renobales. O. ESKITXABEL

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Jubilatuen elkartearen urteko asanblada. Bihar 11:30ean.
Hernalde. Erniopeko IV. Mendi Ibilaldia igandean 06:00etan plazatik. Izen-ematea bertan aurretik. Haurrentzat beste marxa laburragoa izango da bihar 15:00etan plazatik aterata. Gaur *Miloi bat kilometro lur azaletik!* (1980-2003) hitzaldia eskainiko du Josu Iztuetak.
Irua. I. Argazki Lehiaketa bihar 16:30etik 17:30era. Izen-ematea liburutegian.

Tolosa. Komunikabideetako sexismoaren aurkako kontzentrazioa izango da 20:00etan Trianguloan.
Tolosa. Irazki kulturazindun elkartearen bilera 17:00etan CIT-TEEko egoitzan.

Tolosa. Tolosan bizi diren ataundarrek afari bat egin behar dute maiatzaren 28an 21:00etan Fronton jatekuan. Parte hartu nahi dutenek 943 652941 telefonora dei dezaket **Tolosaldea.** Datorren igandean Senperen izango den Herri Urrats festarako autobusak antolatu dituzte Galtzaundi Euskara Taldeak, Ikaztegietak Udalak eta Berrobiko Udal Kultur Batzordeak. Izena emateko azken eguna.

MUSIKA

Anoeta. UHNE kintetoa. 19:30ean udalebako aretoan.

Tolosa. Maddi Oihenart eta Josexto Goia-Arriben. 22:30ean Bonberenean.
Tolosa. Javier Garaialde quintet. 23:30ean Fronton kafetegian.
Tolosa. Film laburrak eta Anartz+U.Bellamy (techno-house) nomeaklimato. Elorri pub-ean 23:30ean.
Tolosa. Laskorain, Txintxarri eta Oroith haur abesbatzak. 19:30ean Jesusen Alaben kapera.
Tolosa. Arianna Puella abeslari ginorraren kontzertua bihar Bonberenean 22:30ean

ZINEMA

Tolosa. *La ventana secreta.* Leidor zineman 22:30ean.
Zizurkil. *Alhambra printzea* haurrentzat Abulondo kultur etxean 18:00etan.

KIROLA

GAUR ▶

- Futbol aretoa.**
- ▶ Plaza Berri Sport-Laskorain A (21:30, Zubiaurre, 1. maila)..
 - ▶ Alegi Calcinor-Anbreta bod. (21:45, I.Begiristain, 2. maila).
 - ▶ Technun-Eskolapios (22:15, Ingeniero Eskola, 2. maila).
 - ▶ Eskolapios-San Benito (18:00, Eskolapios, gazte neskek).
- HITZA Pilota Txapelketa. Benjaminak.**
- ▶ Zelalza-Labaka/Artola-Encinas
 - ▶ Salaberria-Matxinea/Imanol-Maiza.
 - ▶ Galarraga-Aburuza/

Arrospeide-Ormazabal.
 ▶ Amiano-Rezola/Garin-Ansa (Albiztur, 19:00).

BIHAR ▶

- Futbola.**
- ▶ Ordizia-Tolosa (11:30, Altamira, Goren maila).
 - ▶ Inburre-Zarautz (17:00, Elorri, Lurraldekako 1. maila).
 - ▶ Tolosaldea-Bergara (17:30, Usabal, Lurraldekako 1. maila).
 - ▶ Amaro-Urki (15:30, Usabal, Lurraldekako 2. maila Kopia).
 - ▶ Billabona-Internacional (17:00, Arratzain, Gazteen 1.).
 - ▶ Sanpedrotarra-Danena (12:00, Trinxerpe, Gazteen 2. maila Kopia).
 - ▶ Tolosa-Pasajes (16:30, Berazubi, Gazteen 2. Kopia).
- Areto futbolak.**
- ▶ Hegoalde-Foticos Zaragoza (16:00, Berazubi, Ohorezkoa).
 - ▶ Usabal sagardotegia-Moulinex (16:30, Eskolapiok, Autonomikoa).
 - ▶ Laskorain-Usz Coop (18:00, Usabal, 1. nazionala B).
 - ▶ Cash Converters-Zaldibi (18:30, Olaederra, 1. maila).
 - ▶ Antiguako taberna-Trans. Lakunza (17:00, Hernani, 1. maila).
 - ▶ UZ Coop-Laskorain (12:30, Ispilla, gazte mutilak).
- Futbol 7.**
- ▶ B. Ignacio Hondar-Ibarrako Gazte Asanblada (17:00, Idiazabal, 1. maila A).
- HITZA pilota txapelketa. Alebinak.**
- ▶ Aizpuru-Aizpuru/Agirre-Manzisidor.

▶ Lasa-Lopetegi/Arruti-Otaegi
 ▶ Gorostidi-Gallurralde/Zinkunegi-Oruna
 ▶ Iratorza-Santxo/San Sebastian-Castro (Alegia, 16:00).
Infantiliak.
 ▶ Erauskin-Llobregat/Pagola-Fernandez.
 ▶ Lasa-Ezkurdia/Olaetxea-Ulangu
 ▶ Lobato-Arzelus/Olazabal-Urruzola.
 ▶ Garmendia-Lazkano/Agirrezabala-Arakitain (Aduna, 16:00).

Etorkizunekoak.

- ▶ Errazkin-Irureta/Bengoetxea-Astiz.
 - ▶ Ape-Otxotorena/Mazkieran-Lagos (Beotibar, 11:00).
- ETZI ▶**
- Futbola.**
- ▶ Eibartarrak-Danena (15:00, Unbe, Lurraldekako 2. Kopia).
- Futbol 7.**
- ▶ Zardoya Otis-Lanbroa Dickens (10:00, FelixGarin 1, 1. maila A).

• 2004ko maiatzaren 13-14-15 eta 16a • Ibarra

<Orduetgia>
ireki 18:00tan
ITXI ostegunetan 09:00ean
 ostiralean 01:30ean
 larribatean 02:00ean
 igandean 09:00ean

Egitarrak:

- osteguna 13: 18:30ean orratz inguruetan
 21:30ean "IBARRA" & "PAGOLA" abeslariak
- ostirala 14: 18:30ean orratz inguruetan
- larribate 15: 18:30ean orratz inguruetan
- igandea 16: 18:30ean orratz inguruetan

IBARRAKO I. Garagardo Festa
 maiatzaren 13-14-15 eta 16a
 I. Fiesta de la Cerveza

Musika
 Jangela
 2 karpa
 Jaki tipikoak
 Herriko DJ-ak
 Kultur ekitaldiak
 18 garagardo mota
 Bidai eder baten zozketa

HITZAren harpidedunen artean egindako zozketan, 2 laguntzako afariaren irabazle suertatu da: **Jesus Gorostidi Aiarza LEABURU**

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Regina Andrade. Gaur 8 urte.

Zorionak Anoetako familiaren partetik. Muxu bat, sorginbo!!!



URTE ASKOAN

Zorionak Juanjo (Irua).

Farola baten bila?
 Madrigo laguna.

HITZA, zorion agurren tartea
 Urtebetetzak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri.
HITZAren egoitzara
 (Araba etorbidea, 5 behea - Tolosa)
 Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago.
 Mila esker!

DENDA HAUEK Tolosaldeko HITZAren LAGUNTZAILEAK DIRA
Egin itzazu zure erosketak bertan

- Pottoko Haur Jantziak
- Nerea Lentzeria
- Mikel Izagirre lleapaintzaileak
- Iriarte Lentzeria
- Berezi Neurri Berezikiak
- Factory
- Elite Kiroiak
- Bazar Amiano
- Kopibat
- Cid Bitxitegia
- Lizarribar Oinetakoak
- Arri Oinetakoak eta Konponketak
- Desgaste Oinetakoak
- Aralar Kiroiak
- Muebles Garces
- Poxpolin Haur Jantziak
- Oski
- Garikano 1815 Azpiko Arropa
- Amaja Lentzeria
- Kiara Bitxitegia
- Poxpolin Enmarkazioak eta Opariak
- Milar Electro-Hogar
- Imen Bitxitegia
- Pressto Tintoreria
- Onativia Lurrindenda
- Eloia Altzarriak
- La Vasconia
- Axular Oinetakoak
- Iratzar Erlojotegia
- Zumeta
- Elektrogailuak
- Arretxe Mertzzeria
- Ugarte Bitxidenda
- Bitxilore
- Juan Luis Bitxitegia
- Ezenarro Leihokak
- Kanikak arropa denda

HITZAREN HARPIDE DUN TXARTELARREKIN %5*-eko BEHERAPENA IZANGO DUZU ZURE EROSKETAN.
 (Martxoetik ekainera)
EGIN ZAITEZ HARPIDE DUN!
 *Promozio hau ez zaie beste beharapenei gehituko. Eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da.